

Joxemari Carrere

IPUIN KONTALARIA

Ez, ez gara primeran bizi

Gutxienez bitan ikusi dut *El viaje a ninguna parte* filma. Eta beti, pelikula zoragarri batekin gozatzeaz gain, gogoetarako bidea eman izan dit. Fernando Fernan Gomezek idatzi, zuzendu eta interpretatutako pelikula honek Espainiako gerraosteko antzerki konpainia bateko gorabeherak azaltzen dizkigu. Gaztelako herrixketan euren lanak eskaintzen dituen konpainiak bizimodu gogorra darama, miseria gorrian, garai bateko antzerki ohitura eta jokamoldeetan iltzatua, egunen batean hiri handi batean antzezteko eta ospetsu bihurtzeko ametsarekin. Leku apartatu eta pobre horietan antzerkia ikusteko aukera bakarra izanik, nolabaiteko funtzio soziala ere beteko dute, urte gogor haietan komikoen ailegatzeak une gozoa ekartzen baitzuen.

Garai bateko pasadizoak ote ordea? Gaur egun antzerki konpainiek eta kontalariok, esaterako, perspektiba hobeak al ditugu? Jakina, egoera sozio-politiko ez da berdina; beste jendarte batean bizi gara, txuri-beltzeko jendarte batetik koloreztatu batera pasa gara. Oraindik ere, dena dela, *Inongorako bidaian* sartuak gaudela dirudi. Arte eszenikoen gaineko iritzia zeharo baldintzatuta dago hedabideetan eskaintzen den irudiarekin, baita instituzioe-



DANI BLANCO

Segur aski geronek gure partea jarri dugu irudi horretan, baina glamourrez gainezka dagoen ofizioaren irudia errealitatetik urrun dago orokorrean

tatik ematen denarekin ere. Inoiz baino azpiegitura hobeak ditugu; inoiz baino diru gehiago; inoizko zabalkunderik handiena. Hau ikusirik, ez dirudi kexatzeko aitzakia handirik dugunik: “Hori suerte, nahi duzuna egiten duzu, eta gainera kobratuz” izaten da askotan entzuten dugun leloa; edo “hi primeran bizi haiz, ordutegirik gabe, beti alde batetik bestera, lekuak eta jendeak ezagutzen, ez haiz kexatuko, hartuko nikek nik halakorik”.

Segur aski geronek gure partea jarri dugu irudi horretan, baina glamourrez gainezka dagoen ofizioaren irudia errealitatetik urrun dago orokorrean. Gehienetan errealitatea bestelakoa izan ohi da: prekariedade izugarria, estualdi ekonomiko larriak, programatzaile eta kultur arduradun askoren gutxiespena; eta ofizio hau inongorako bidaian jartzen duten hainbat baldintza. Eta jakina, askok galdetuko dute ea zergatik jarraitzen dugun bidaia horretan, Caronteren txalupan, itxuraz. Beharbada erantzun zaila izango da, baina oinarrian dago maite dugula mundu imajinarioak herriz herri eramatea, maite dugula errealitatea istorio liluragarrien bidez azaltzea. Sasi guztien gainetik eta laino guztien azpitik. Eta agian, ez dakigulako, dagoeneko, beste ezer egiten. ■

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



dute, zaborra lurrazpiko ikusezin, atez ate gezurak zabalitzen jardun ondoren *Diario Vasco* haizagailu. Hernani, Usurbil, Oiartzun. Hirurek eurenak ageriko, agerian utzi diete sasira lehenik eta krematoriora gero nahi luketenei, atez ateko bilketa probatu duten herritarrak konforme baino konformeago daudela ardura bere eskutan uzten duen sistemarekin, zero zabor gogoan. Politikariek, oraingoan, galdu egin dutela onartu dute publikoki eta horietako baten esanak *Hernaniko Kronikan* irakurri ditut. “Atez atekoen aldekoek irabazi dute, guk jarraituko

Ederra bildu

dugu aurka egiten”. Rekondo hernaniarren hitzak dituzue, ez Xabier Mikel usurbildarrarenak noski. Gabriel Arestiren hura ekarri dit gogora alkate izandako hernaniarrak, matraila bakarrean hartzen zituela denak, bigarren matraila erakusteko astirik ematen ez ziotela kantatzen zuen huraxe. Eta begitartea mudatu gabe kapaz ditugu porrotetatik irakaspén sakonena erakartzen dituztela esateko, poetak bailiran. Komerzialagoa da. Niri, nire kalenturak berak jota daudela iruditzen zait, zorri berak erasoka bizi gaituela, arerioengandik ikasteko ezgauza garena. Ni jakitun naizue. Sendabelarraren zain bizi naiz. ■